

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

93/2021 Foru Agindua, ekainaren 16koa. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzupean karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaprobak arautuko dituzten oinarri orokorre. Hautapropa horiek psikologo, gizarte langile eta desgaitasuna dutenen monitore plazei buruzkoak dira; hau da, 2018, 2019 eta 2020rako enplegu publikoaren eskaintzak onetsi zituzten 820/2018, 857/2019 eta 723/2020 erabakiek aurreikusitako plazei buruzkoak

Abenduaren 28ko 820/2018 Erabakiaren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren 2018rako enplegu publikoaren eskaintza onetsi zen, non kasuan kasuko hautaketa prozesuen bidez bete beharreko plazak jasotzen baitira. Erabaki horrek barnean hartu ditu, besteak beste, psikologo, gizarte langile eta desgaitasuna dutenen monitore plazak.

Abenduaren 27ko 857/2019 Erabakiaren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren 2019rako enplegu publikoaren eskaintza onetsi zen, non kasuan kasuko hautaketa prozesuen bidez bete beharreko plazak jasotzen baitira. Erabaki horrek barnean hartu ditu, besteak beste, psikologo, gizarte langile eta desgaitasuna dutenen monitore plazak.

Abenduaren 29ko 723/2020 Erabakiaren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren 2020rako enplegu publikoaren eskaintza onetsi zen, non kasuan kasuko hautaketa prozesuen bidez bete beharreko plazak jasotzen baitira. Erabaki horrek barnean hartu ditu, besteak beste, psikologo, gizarte langile eta desgaitasuna dutenen monitore plazak.

Hautaketa prozesuen kudeaketan beharrezkoak diren ekonomia, eraginkortasun eta efizientzia arrazoiengatik, gomendatzen da batera egitea 2018, 2019 eta 2020rako enplegu publikoaren eskaintzak, psikologo, gizarte langile eta desgaitasuna dutenen monitore plazei buruzkoak.

Bat etorri Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak (azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatua) langileen hautapenari buruz 23. artikuluan eta XI. tituluko IV. kapituluaren ezartzen duenarekin, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren egituraren eta funtzionamenduaren araudia onesten duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak 11.b) artikuluan ezartzen duenaren arabera,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzupean karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaprobak arautuko dituzten oinarri orokorre, zeinak eranskin gisa baitoaz. Hautapropa horiek psikologo, gizarte langile eta desgaitasuna dutenen monitore plazei buruzkoak dira; hau da, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren 2018, 2019 eta 2020rako enplegu publikoaren eskaintzak onetsi zituzten abenduaren 28ko 820/2018, abenduaren 27ko 857/2019 eta abenduaren 29ko 723/2020 erabakiek aurreikusitako plazei buruzkoak.

Bigarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, berau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, bat etorri Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan

xedatutakoarekin — Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta—.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 16a

Gizarte Politiken saileko foru diputatua
EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ

ERANSKINA

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAREN ZERBITZUPEAN KARRERAKO FUNTZIONARIO GISA SARTZEKO HAUTAPROBAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI OROKORREI. HAUTAPROBA HORIEK PSIKOLOGO, GIZARTE LANGILE ETA DESGAITASUNA DUTENEN MONITORE PLAZEI BURUZKOAK DIRA; HAUDA, GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDE AUTONOMOAREN 2018, 2019 ETA 2020RAKO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK ONETSI ZITUZTEN ABENDUAREN 28KO 820/2018, ABENDUAREN 27KO 857/2019 ETA ABENDUAREN 29KO 723/2020 ERABAKIEK AURREIKUSITAKO PLAZEI BURUZKOAK

1. XEDEA.

1.1. Oinarri hauen xedea da arau orokorrak ezartzea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eskala, azpieskala eta klase batzuetako plazak betetzeko; haiek kasuan kasuko oinarri espezifikoetan adieraziko dira.

1.2. Hautaprobeen deialdia egiten da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko karrerako funtzionarioen 101 plaza huts betetzeko. Hona hemen plaza horiek nola dauden banatuta: 87 plaza sistema irekiaren bidez betetzeko, eta 14 plaza barne sustapeneko sistemaren bidez betetzeko.

Bi sistema aurreikusten dira parte hartzeko edo sartzeko:

1) Sistema irekia:

- Txanda orokorra.
- Desgaituentzat gordetako kupoa.

Sistema irekiko prozesuetan desgaituentzat gordetako plazak hutsik geratzen badira, ezin izango zaizkio txanda orokorrari gehitu.

2) Barne sustapeneko sistema:

- Txanda orokorra.
- Desgaituentzat gordetako kupoa.

Barne sustapeneko prozesuetan desgaituentzat gordetako plazak hutsik geratzen badira, barne sustapeneko prozesuetako txanda orokorrari gehituko zaizkio.

Barne sustapenerako gordeta egon eta bete ez diren plazak sistema irekiko txanda orokorrari dagozkion gainerako plazei gehituko zaizkie, baldin eta deialdi independenterik izan ez badute; halakoetan, hutsik geratzen diren plazak ez zaizkie, inola ere, sistema irekiaren bidez eskainitako plazei gehituko.

Kasuan kasuko oinarri espezifikoetan adierazten dira sartzeko sistema bakoitzean betetzeko gorde diren plazak, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 28ko 820/2018, abenduaren 27ko 857/2019 eta abenduaren 29ko 723/2020 erabakiek ezarritakoaren arabera.

Desgaituentzat gordetako txandan desgaituren batek kasuan kasuko ariketak gainditu baina plazarik lortzen ez badu, eta lortutako puntuazioa handigoa bada txanda orokorreko beste izangai batzuk lortutakoa baino, txanda orokor horren barruan sartuko da puntuazio hurrenkeraren arabera.

1.3. Baldintzaren bat ezarrita daukaten lanpostuak inolaz ere ezin izango dira bete baldintza hori betetzen dutela frogatzen ez duten izangaiekin.

1.4. Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu batekina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 61.8 artikuluan ezartzen duenarekin arabera, epaimahaiak ezin izango ditu hautatu deitutako plazak baino izangai gehiago. Muga hori urratzen duten proposamenak erabat deusezak izango dira.

2. BALDINTZA OROKORRAK.

2.1. Izendapenak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen karrerako funtzionarioaren izaera emango die hautatuei, gai honetaz indarrean dauden xedapenetan ezartzen diren eskubide eta betebeharrak guztiekin.

2.2. Hautaketa prozesua amaitzen denean dauden eta dei egindako plazari dagozkion lanpostu hutsen arabera izango da zerbitzua emateko destinoa.

2.3. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen sartu eta funtzionario bihurtzen direnei Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean emango zaie alta, eta bertako kide egingo dira; beraz, araubide horretan ezartzen den babesa edukiko dute. Alta lanpostuaz jabetzen diren egunean hasiko da ondorioak sortzen.

3. IZANGAIEN BETEKIZUNAK.

3.1. Izangaiek hurrengo puntuetan zehazten diren baldintzak beteta eduki behar dituzte eskaerak aurkezteko aldia amaitzen den egunean, eta betetzen jarraitu behar dute esleitzen zaien lanpostua jabetzan hartzen duten egunera arte.

3.2. Hona hemen izangaiek zer betekizun bete behar dituzten, oinarri espezifikoetako hautaprobetan onartuak izateko:

a) Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea, edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunak ezartzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea onartuta daukaten estaturen bateko kide izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetako herritartasuna dutenen ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, baldin eta legez bananduta ez badaude, bai eta herritartasuna duenaren eta haren ezkontidearen ondorengoek ere —baldin eta horiek ere legez bereizita ez badaude—. Azken horiek hogeita bat urte baino gutxiago izan beharko dute edo bestela hori baino zaharrago eta menpekoak izan.

b) Izangaiek hamasei urte beteta eduki behar ditu eta ezin du izan erretiroa hartzeko adina.

c) Lanpostuko egitekoak normaltasunez egitea galarazten duen gaixotasunik edo mugapen fisiko edo psikikorik ez edukitzea. Hala ere, Ezinduek Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legea aplikatu ahaliko da. Hautaketa prozesua gainditutakoan gaitasun fisikoa eta psikikoa egiaztatuta beharko dira; hartarako, osasun azterketa egin beharko da, 9.4 oinarrian xedatzen den bezala. Baldintza hori betetzea ezinbestekoa izango da lanpostuaz jabetzeko.

d) Deialdi espezifikoan eskatzen den titulu ofiziala edo homologatua edukitzea, edo titulua lortzeko eskubideak ordainduta edukitzea. Titulua atzerrikoa izanez gero, homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da.

e) Diziplina espediente bidez baztertuta ez egotea autonomia erkidegoetako edozein administrazio publikoren edo organo konstituzional edo estatutuen arabera organoen zerbitzutik, eta ez izatea epai bidezko erabateko desgaituntzarik edo desgaituntza berezirik enplegu eta kargu publikoetan aritzeko ez funtzionario kidego edo eskalan sartzeko, ez eta, langile lan kontratadunen kasuan, bazterketa edo desgaituntza xede izan den lanpostuan egiten zituzten antzeko egitekoetan aritzeko ere. Beste estatu bateko nazionalitatea edukiz gero, ez izatea desgaituntzarik edo antzekorik, ez eta bere estatuan enplegu publikora sartzeko modu berean eragozten duen diziplina zehapenen baten edo antzekoren bat ere.

f) Indarreko araudiaren arabera desgaitasun edo bateraezintasuneko lege kausaren batean sarturik ez egotea.

g) Oinarri espezifikoetan eskatzen diren gainerako betekizun guztiak.

3.3. Desgaituentzat gordetako kupoa.

Eskaerak aurkezteko aldia amaitzen den egunean, desgaituentzat gordetako plazetarako lehiatzen diren pertsonen ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa onartuta eduki beharko dute indarreko legeriaren arabera. Aitorpen hori egiaztatzeke, administrazio organo eskudunak (foru aldundietako edo autonomia erkidegoetako sail eskudunak edo IMSERSOK) jaulkitako ziurtagiri egokia aurkeztu beharko da.

3.4. Barne sustapeneko sistema.

Barne sustapeneko plazetarako lehiatzen direnek honako baldintza hauek bete beharko dituzte 3.2 oinarrian aipatzen diren betekizun orokorrez gainera:

a) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko karrerako funtzionario izatea, titulazio talde berekoa edo maila bat beheragokoa, eta jatorriko eskalan karrerako funtzionario gisa bi urte aritu izana, parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

b) Jatorriko eskalan, zerbitzu aktiboan edo harekin asimilatuan egotea, edo zerbitzu berezietan.

Izangai batek sistema honetan parte hartzeko baldintzak betetzen ez baditu, haren eskaera sistema irekirako aurkeztutzat joko da ofizioz.

3.5. Deialdi espezifiko bakoitzean, izangaiek sistema bakar batean hartu ahal izango dute parte (sistema irekia edo barne sustapeneko sistema), eta eskaeran zer sistematan parte hartu nahi duten zehaztuko dute. Eskaeran hautua berariaz adierazten ez bada, edo deialdi bere-rako biak hautatzen badira (behar bezala formulatuta), izangaiek sistema irekia hautatu duela pentsatuko da.

4. EGOKITZAPENAK.

4.1. Gainerako izangaiei baldintza berberetan parte hartzen dutela ziurtatzeko, hautaketa prozesuetan probak egiteko beharrezkoak diren denboraren eta bitartekoen arrazoizko egokitzapenak eta doikuntzak ezarriko dira hala eskatzen duten izangaientzat, baldin eta desgaitasunak zuzeneko loturarik badu egin beharreko probarekin.

4.2. Kasuan kasuko epaimahai kalifikatzaileak ebatziko du, desgaituek aurkeztutako agiriak aztertuta, probak egiteko beharrezkoak diren denboraren eta bitartekoen arrazoizko egokitzapenak eta doikuntzak ezartzeko eskaeraren gainean.

4.3. Haurdun edo edoskitze egoeran daudenek egokitzapenak eskatu ahalko dituzte hori epaimahai kalifikatzaileari jakinarazita, kasuan kasuko proba egin baino bost egun baliodun lehenago behintzat.

5. ESKAERAK AURKEZTEA.

5.1. Eskaerak noiz eta nola aurkeztu.

a. Deialdi honen ondoriozko hautapen prozesuan parte hartu nahi dutenek 20 egun naturalen epealdia edukiko dute eskaera aurkezteko deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b. Eskaerak eredu ofizial eta normalizatuan egin behar dira eta Gizarte Politiken Saileko foru diputatuari bidali behar zaizkio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Atariaren bidez (www.araba.eus/ifbs/portalempleo/). Eskaeran sartuta egongo da 5.4 apartatuan ezartzen den tasaren ordainketa telematikoa.

5.2. Deialdian onartuak izateko eta, bidezkoa izanez gero, hautaprobetan parte hartu ahal izateko, izangaiek eskaerako atal guztiak bete behar dituzte. Izangaiek adierazi beharko dute eskatzen diren betekizun guzti-guztiak betetzen dituztela eskaera aurkezteko epealdiko azken egunean, 8.3.2 eta 8.4.3 oinarrietan euskara eta informatika probetarako ezartzen den salbuespen kasuan izan ezik.

Horretarako, honako datu hauek adierazi beharko dira eskaerako kasuan kasuko ataletan:

a) Eskatzen diren datu pertsonalak.

b) Zer sistematan parte hartu nahi den, irekian edo barne sustapenekoan, oinarri espezifikoetan ezartzen denarekin bat etorriz. Izangaiek sistema batean bakarrik parte hartu ahal izango dute deialdi espezifiko bakoitzeko.

c) Desgaituentzat gordetako kupoen parte hartzeko hautua, oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera, baldin eta izangaiek pertsona horientzat gordetako plaza baterako lehiatzeko betekizunak betetzen baditu eta parte hartu nahi badu. Aukera hori hautatzen dutenek ezin izango dute parte hartu deialdi espezifiko txanda orokorretan, ez sistema irekian, ez barne sustapeneko sisteman, 1.2 oinarriko azken paragrafoan ezartzen dena gorabehera.

d) Zer plazatarako lehiatu nahi den.

e) Oposizio aldiko ariketak zer hizkuntza ofizialetan egin nahi diren, euskaraz ala gaztelaniaz.

f) Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko euskara ariketa egiteko hautua.

g) Hautaprobak egiteko moldaketa teknikoren bat behar duten desgaituek nolako moldaketak behar dituzten azaldu behar dute prozesuan parte hartzeko eskaeran. Halaber, adierazi beharko dute epaimahai kalifikatzaileari baimena ematen diotela eskatzen dituzten moldaketa teknikoak baloratzeko behar den informazioa eskatzeko erakunde eskudunari.

Hori dela eta, desgaitutzat joko dira baldintza hauek betetzen dituztenak: aukera berdintasunari, bereizkeriarik ezari eta desgaituen irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legeak 1.2 artikuluan aipatzen dituen desgaitasunen bat edukitzea onartuta eta haren gradua ehuneko 33koa izatea gutxienez.

5.3. Datu pertsonalen babeserako dagoen araudia betez, hautaketa prozesuak kudeatzeko eskatzen diren datuak Langileen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak kudeatzen duen "Langileak" fitxategian sartuko dira, zeina Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluaren 2015eko martxoaren 31ko Erabakiaren bidez sortua baita (2015eko maiatzaren 15eko ALHAOren 58. zenbakian argitaratua); Kudeatzailletza da fitxategiaren arduraduna, eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko eskubidea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zerbitzu Orokorren Egoitzan gauza daiteke (San Prudentzio kalea, 30, 2. Solairua, Gasteiz).

Hautapen prozesuetan parte hartzen dutenek berariaz ematen dute baimena, kontrakoa adierazi ezean, beren datu pertsonalak oinarri hauetan eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazten moduan eta finkatzen den xederako erabiltzeko.

Hautaketa prozesuetan parte hartzen dutenek berariazko baimena ematen dute, kontrakoa adierazi ezean, beren datu pertsonalak oinarri hauetan eta deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan adierazitako moduan eta xederako tratatzeko, baita Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak euskara maila egiaztatzeko Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan, eta informatikako egiautzak egiaztatzeko ere.

5.4. Azterketa eskubideen tasak.

Hautaketa prozesuan parte hartu nahi dutenek honako tasa hauek ordaindu behar dituzte eskaerak aurkezteko epealdiaren barruan: Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoko langileak hautatzeko deialdietan parte hartzeko ordaindu beharreko tasak ezartzen dituen maiatzaren 16ko 12/2005 Foru Arauak laugarren artikuluan finkatzen dituenak.

Azterketa eskubideen tasa ez da itzuliko eskatzaileari egoztekoak diren arrazoiengatik.

6. IZANGAIK ONARTZEA-ERREKLAMAZIOAK.

6.1. Eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak hilabete pasatu baino lehen emango du 1.2 oinarrian ezartzen diren txandetan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrendak onartzen dituen foru agindua; baztertutakoei dagokienez, prozesutik baztertzeko arrazoia azalduko da. Zerrenda horietan honako datu hauek azalduko dira: sistema eta txanda, izangai bakoitzak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizial erabili nahi duen ariketak egiteko, eta bakoitzak zer hautatzen duen euskara azterketari buruz. Foru agindu hori ALHAOn argitaratuko da.

Baztertutako izangaiek eta argitaratutako datuetan okerren bat ikusten dutenek hamar egun balioduneko epealdia edukiko dute behin-behineko zerrendak ALHAOn argitaratzen denetik aurrera erreklamazioak egiteko edo okerrak zuzen daitezela eskatzeko.

6.2. Erreklamazioetarako epealdia amaitu eta aurkeztzen diren erreklamazioak ebatzi ondoren Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onetsiko ditu foru agindu baten bidez (ALHAOn argitaratuko da); zerrenda horietan behin-behineko zerrendetako datu berak xehatuko dira.

6.3. Foru agindu horiek, era berean, GOFeko Enplegu Publikoaren Atarian (www.araba.eus/ifbs/portalempleo/) argitaratuko dira.

6.4. Probak egin behar diren egunerako ez badaude ebatzita onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onesten dituen foru aginduan prozesutik baztertuta geratu diren izangaiek aurkeztutako errekurtsioak, izangaioak proba horiek egin ahal izango dituzte; hala ere, gero errekurtsioak ezesten badira, probek ez dute baliorik edukiko.

6.5. Edonola ere, interesdunek hautaprobetarako eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela aitortzeko baldintza da haiek egiaztatzea 11. oinarriaren arabera aurkeztu behar diren agiriak aurkeztuta; agiriaren bidez egiaztatu ezean, interesdunak galdu egingo ditu hautaketa prozesuan parte hartzeak ekar ditzakeen eskubide guztiak.

7. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAK.

7.1. Izendapena.

Gizarte Politiken Saileko diputatuaren foru agindu baten bidez izendatuko dira hautaprobak kalifikatuko dituzten epaimahaietako kideak. Izendapen horiek eta onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak batera argitaratuko dira ALHAOn.

7.2. Osaera.

Epaimahaiak bost kidez osatuta egongo dira: epaimahaiburu bat eta lau kide, zeinak karrerako funtzionarioak izango baitira. Kideetako bat idazkari izendatuko da. Horiek guztiek ordezkotako bat izango dute.

Hona hemen epaimahaien osaera:

Epaimahaiburua:

— Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzupean ari den karrerako funtzionario bat.

Kideak:

- Administrazio publikoen zerbitzura ari diren karrerako bi funtzionario.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako karrerako funtzionario bat.

Idazkaria:

- Administrazio publikoen zerbitzura ari den karrerako funtzionario bat.

Epaimahaietako kidetza norberarena izango da beti; hau da, kidetza hori ezin da besteren ordezkartzan gauzatu edo ezin da besteren edo kontura jardun.

Epaimahaien osaeran espezialitatearen printzipioa aplikatuko da. Printzipio horren arabera, epaimahai bakoitzeko kideen erdiek gutxienez hautaprobetako jakintza arloko titulazioa eduki behar dute. Kide guztiek, nolahi ere, maila akademiko bereko edo goragoko titulazioa eduki behar dute.

Bermatuko da epaimahai kalifikatzaileek ordezkartza orekatua edukitzea trebetasun, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen artean.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari epaimahai kalifikatzaileetan dagokion ordezkartza alde batera utzita, erakunde horretarako ordezkari bat egongo da epaimahaietan hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probak egiteko eta ebaluatzeko ez beste ezertarako.

Epaimahaiak aholkulariak hartu ahal izango ditu hautaketa prozesuko proba batzuetarako edo guztietarako. Aholkulariek beren espezialitate teknikoan soilik jardungo dute, eta horrexetan soilik lagunduko diote organo kalifikatzaileari. Epaimahaiak bere eztabaidetan parte hartzeko eskatzen badie, aholkulariek hitza izango dute baina botorik ez.

7.3. Abstentzioa eta errekusatzea.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23. artikuluan ezartzen dituen inguruabarretako bat gertatuz gero, epaimahaikideek uko egin beharko diote jarduteari eta Gizarte Politiken Saileko foru diputatuari jakinarazi beharko diote.

Halaber, inguruabar horietako bat gertatuz gero, interesdunek noiznahi errekusatu ahal izango dituzte epaimahaikideak, lege testu horrek 24. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik.

Deialdia argitaratu aurreko bost urteetan izangaiak hautaprobetarako prestatzeko lanetan ibili diren funtzionarioak ezingo dute epaimahaiko kide izan.

7.4. Epaimahaikideak oinarriei lotzea.

Epaimahaiak lotuta geratzen dira oinarri orokor hauei eta kalifikatu beharreko probetako hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri espezifikoiei.

7.5. Jarduteko arauak.

Epaimahaien jarduna Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 15. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen duenari lotuko zaio.

Edonola ere, hautaprobak hasi aurretik eta garaiz bilduko dira, lehendakariaren aginduz idazkariak bilera deia eginda, eta, behar bezala eratzeko, lehendakaria eta idazkaria, edo haien ordezkariak, eta kideen erdiak bildu behar dira, gutxienez.

Erabakiak bileran dauden botoen gehiengoz hartuko dira. Epaimahaiko kide guztiek izango dituzte hitza eta botoa. Berdinketak epaimahaiburuaren kalitate botoaren bidez ebatziko dira.

Epaimahaiburuaren edo beraren ordezkariaren kargua hutsik badago, bertaratzen ez bada, gaixorik badago edo legeko arrazoiren bategatik bilerara azaltzen ez bada, epaimahaikide hauetako bat izango da ordezkaria (hurrenkera honetan): hierarkian maila goragokoena duena, antzintasun handiena duena eta zaharrena.

Idazkari titularren edo beraren ordezkoren kargua hutsik badago, bertaratzen ez bada, gaixorik badago edo legezko arrazoiren bategatik bilerara azaltzen ez bada, beste epaimahai-kideetako batek jardungo du haren ordeze, hain zuzen ere gehiengoaren erabakiaren bidez hautatzen dutenak.

7.6. Ahalmenak.

Epaimahaiak erabateko autonomia funtzionala edukiko du, eta beraren ardurak izango dira prozedura legezkotasunez egin dadin zaintzea eta objektibitatea bermatzea.

5.2.g) oinarrian ezartzen denaren arabera probak egiteko beharrezkoak diren denboraren eta bitartekoen arrazoizko egokitzapenak eta doikuntzak ezartzeko aurkeztzen diren eskaerak epaimahaiak ebatziko dituzte, desgaituek aurkeztutako agiriak aztertu ondoren.

Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak argituko ditu, eta deialdia behar bezala gauzatzeko behar diren erabakiak hartuko ditu. Gainera, behar diren irizpideak ezarriko ditu oinarrietan aurreikusten ez diren kasuetarako.

Hautaketa prozesuko edozein unetan epaimahaiak deialdian eskatzen diren betekizunak egiaztatzeko eskatu ahal izango du, eta horretarako 20 egun balioduneko epealdia ezarriko du. Izangaietako batek betetzen ez baditu edo epealdiren barruan egiaztatzen ez baditu, epaimahaiak entzunaldia emango zaio interesdunari eta gero prozesutik baztertzeko proposamena egingo dio Gizarte Politiken Saileko diputatuari, baztertzeko proposamenaren arrazoiak azalduta.

Epaimahaiburuek behar diren neurriak hartuko dituzte oposizio aldiko proba idatzien edukia isilpean gordetzen dela bermatzeko eta ariketak izangaiak nor diren jakin gabe zuzentzeko.

Zuzenketa mekanizatuta ez dagoen kasuetan, epaimahaiak baztertu egingo dituzte proba idatzietan lehiatzailea nor den jakiteko bidea ematen duen markak edo zeinuak jartzen dituzten hautagaiak.

7.7 Egoitza.

Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, epaimahai kalifikatzaileek helbide hau izango dute: Langileen Arloko Zuzendariordetza Teknikoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea. San Prudentzio kalea, 30, 1. solairua, 01005, Gasteiz. Araba.

7.8. Kalte-ordainak, zerbitzuengatik:

Epaimahaietako kideek kalte-ordainak jasoko dituzte zerbitzuengatik, bileretakoak barne, horri buruz indarrean dauden arauak aplikatuta.

8. HAUTAKETA PROZEDURA.

8.1. Sistema irekiaren eta barne sustapeneko sistemaren bidezko hautaketa prozedura oposizio-lehiaketa izango da; deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoek ezartzen dutenaren arabera egingo da eta praktika eta prestakuntza aldia ezar daiteke hautaketa prozesuko fase gisa.

8.2. Oposizio aldiko ariketak.

8.2.1. Oposizio aldiak deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazten diren ariketak izango ditu.

8.2.2. Hautaprobak ez dira hasiko eskaerak aurkezteko epealdia amaitzen denetik bi hilabete pasatu baino lehen. Lehen proba non eta noiz (eguna eta ordua) egingo den ALHAOn argitaratuko da. Izangaiei erakunde honen Enplegu Publikoaren Atariaren bidez (www.araba.eus/ifbs/portalempleo/) jakinaraziko zaie noiz eta non egingo diren gainerako ariketak.

8.2.3. Txanda bakoitzeko izangaiei deialdi bakarra egingo zaie ariketa bakoitzerako. Identifikatu ahal izateko, izangaiek NANA, pasaportea edo gidabaimena ekarri behar dituzte probetara (atzeritarrek haien baliokide den agiria). Gainera, eta epaimahai kalifikatzaileak adierazitako epean, izangai bakoitzak bere hatz marka digitala har diezaioten joan beharko da. Ekitaldi

horretan bertan, NANaren kopia bat edo, atzerritarren kasuan, agiri baliokide bat ere emango dute. Izapide hori betetzetik salbuetsita daude Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko langileak izateagatik edo izanagatik arrasto digitala erregistratuta duten hautagaiak. Hatz markak balioko du hautaketa prozesu osoan zehar identifikatzeko eta sartzeko bitarteko gisa, eta erakunde honi baimena emango zaio hatz marka hori erabiltzeko. Hatz markak eta NANaren kopia ezarritako epean aurkezten ez dituzten izangaiak hautaketa prozesutik kanpo geratzeko dira automatikoki, eta prozesu horretan parte hartzeko eskubide guztiak galduko dituzte.

8.2.4. Epaimahai kalifikatzaileek ariketak egiteko denbora eta bitartekoak izangai desgaituen beharrianetara moldatuko dituzte, eskaeran horren berri eman eta moldatzeko eskatzen badute, hain zuzen ere, gainerako izangai guztien aukera berak eduki ditzaten, baina egokitzapen horrek ezin du hutsaldu probaren edukia eta ezin du jaitxi ez murriztu eskatzen den gaitasun maila.

8.2.5. Ariketa baten behin betiko emaitzak argitaratzen direnetik hurrengo ariketa hasi arte 7 egun natural igaro behar dira gutxienez, eta berrogeita bost egun natural gehienez.

8.2.6. Izangai guztiek proba edo ariketak batera egiterik ez dagoenean, lehen abizenaren lehen letraren arabera erabakiko da nortzuk izango diren lehenak, proba edo ariketa egi-ten den garaian indarrean dagoen letratik hasita, bat etorritik Administrazio Publikoen Estatu Idazkaritzaren ebazpenak ezarritakoarekin.

8.2.7. Ariketa bakoitzaren behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izangaiek hamar egun baliaduneko epealdia edukiko dute ariketa horren inguruan egokitze-otzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko epaimahai kalifikatzaileari.

Erreklamazioetarako epealdia amaiturik, eta aurkezten direnak ebatzi ondoren, epaimahaiak ariketaren behin betiko emaitzak argitaratzeko aginduko du.

8.2.8. Deialdi bakoitzean bi gai zerrenda egongo dira: bata komuna, plazaren titulazio taldeari dagokiona, eta bestea espezifikoa, plazari berari dagokiona.

8.2.9. Barne sustapeneko sistematik lehiatzen direnek ez dute edukiko zertan egin deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoaren arabera gai zerrenda komuneko ezagutzak baloratzeko probak.

8.3. Euskara.

8.3.1 Plaza bakoitzari dagokion hizkuntza eskakizuna deialdiaren oinarri espezifikoetan eza-rriko da.

Edozein plaza eskuratzeko, alde batera utzita ezarrita daukan eskakizuna nahitaezkoa den edo ez, euskara jakitea merezimendu gisa baloratuko da 8.4 oinarrian azaltzen den lehiaketa aldian; balorazio hori hautaketa prozesu osoan lortu daitekeen gehieneko puntuazioaren ehu-nekoa izango da, handiagoa edo txikiagoa egiaztatutako hizkuntza eskakizunaren mailaren arabera.

Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko azken eguna deialdi bakoitzean aurreikusitako proba egiten den eguna izango da.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean hizkuntza eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriz ere egiaztatu behar izango parte hartzen ari diren hautaketa prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta ageri direnean ere, eta horretarako, parte hartzaileak berariaz baimena emango dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari hori egiaztatu dezan erregistro horretan.

Edonola ere, erregistro horretan jasotzen ez den eta uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren arabera baliokidetu den beste edozein titulu edo ziurtagiri aurkeztu beharko da. Dekretu ho-rren bidez, tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua aldatu zen.

Baldin eta norbaitek hizkuntza eskakizunak aurkeztu nahi baditu apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean, zeinaren bidez euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartu eta hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez euskara maila egiaztatzetik salbuesten baita, hari dagokion ikasketen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Horretarako, hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probak egin baino lehen, kasuan kasuko epaimahai kalifikatzaileak epe bat irekiko du izangaiek erregistro horretan jasotzen ez diren euskara titulu edo ziurtagiriak eta ikasketen ziurtagiri horiek aurkezteko.

8.3.2. Euskara ariketa: euskara azterketa hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko egingo da. Nahitaezkoa izango da hizkuntza eskakizuna eskatzen den plazetara aurkezten direnentzat. Aldiz, borondatezkoa izango da hizkuntza eskakizuna nahitaezkoa ez den plazetara aurkezten direnentzat.

Epaimahai kalifikatzaileak erabakiko du zein unetan egingo den euskara ariketa, zeina betiere egingo baita oposizio aldiaren azken ariketaren behin betiko emaitzak argitaratzeko datatik hurbilen egiten den deialdi bateratuan.

Behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izangaiek hamar egun balioduneko epealdia edukiko dute euskara azterketaren inguruan nahi dituzten erreklamazio guztiak aurkezteko.

Erreklamazioak epealdia amaitu eta aurkezten diren erreklamazioak ebatzi ondoren epaimahaiak euskara azterketako behin betiko emaitzak argitaratzeko aginduko du.

8.4. Lehiaketa aldia.

8.4.1. Deialdi espezifikoetan epaimahai kalifikatzaileak epealdi bat eman ahal izango du baloratu beharreko merezimenduak alegatzeko eta hala badagokio egiaztatzeko. Fase honetan izangaiek alegatzen eta egiaztatzen dituzten merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, haietako bakoitzari dagozkion puntuak emanez, deialdian zehaztutako baremoen arabera.

Merezimenduak egiaztatzeko aurkezten diren agiriak jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izango dira. Kopia horiek balio;duinak izateko, honako informazio hau jasoko dute: data eta konpultsaren erantzukizuna duenaren izen-abizenak, NANA eta sinadura irakur daitekeen letra.

Oposizio aldiko azken ariketaren behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren 10 egun balioduneko epealdia ezarriko da oinarri espezifikoetan aipatzen diren lehiaketa aldiko merezimendu konputagarriak alegatzeko eta egiaztatzeko, euskararen ezagutza ez beste guztiak. Izan ere, euskararen ezagutza egiaztatzeko bi modu egongo dira: 8.3.2 oinarrian aipatzen den azterketa egitea edo egiaztagiria aurkeztea 8.3.1. oinarriko hirugarren paragrafoan aipatzen den epealdian.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, aurkezteko epealdiaren barruan behar bezala alegatzen eta egiaztatzen ez diren merezimenduak.

Oposizio aldiko azken ariketaren kalifikazioari erreklamazioa jartzen diotenek harekin batera merezimenduak alegatu eta egiaztatu beharko dituzte, oinarri espezifikoetan ezartzen denaren arabera.

Denboraren arabera (urteka, sei hilekoa edo hilka) baloratzen diren merezimenduak konputatzeko alegatutako aldi guztietako egun guztiak batuko dira, erreferentziako aldia baino laburragoak diren zatikiak aintzat hartu gabe. Horretarako, urtea 365 egun naturalen batura izango da, sei hilekoa 180 egun naturalen batura eta hila 30 egun naturalen batura.

Lehiaketa aldian ez da inor baztertuko, eta izangaiek lortzen dituzten puntuak ez dira kontuan hartuko oposizio aldiko probak gaingidatzeko.

8.4.2. Alde batera utzita 8.3.2 oinarrian euskararen ezagutzaz eta 8.4.3 oinarrian informatika ezagutzez ezarritakoa, gainerako merezimenduak eskaerak aurkezteko epealdiko azken eguna aintzat hartuz konputatuko dira soilik.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean egindako zerbitzuak alegatu egin behar dira, baina ez dira egiaztatu beharko. Administrazio horrek ofizioz konputatuko ditu.

Gainerako administrazio publikoetan egindako zerbitzuen denbora administrazio horietako bakoitzean langileriaren arloko eskumena daukan organoak ziurtatuko du, administrazio bakoitzak horretarako ezarrita daukan eredia erabiliz. Nolanahi ere, lanaldiak xehatu behar dira kidego edo eskalaren, azpieskalaren eta klase edo kategoriaren arabera eta lan egindako lanpostuetarako behar diren tituluen arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko foru eta toki administrazioan egindako zerbitzuak baliokideak joko dira, euskal administrazio publikoetako kidego eta eskalen arteko baliokidetza finkatzen duen uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuak ezartzen duen moduan. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako kidegoak eta eskalak antolatzeke otsailaren 25eko 1/2004 Legeak xedatzen duena gorabehera.

8.4.3. Deialdi baten oinarri espezifiketan informatika ezagutzak merezimenduak direla ezartzen bada, zehazten diren informatika ezagutzen mailak egiaztatzea merezimendu gisa baloratuko da oinarrietan ezartzen diren baremoen arabera; horretarako, Informazio Gizartearen Euskadi Planak KZgune zentro publikoetan eskura jartzen dituen moduluak eskuratzeko probak gainditu beharko dira.

Modulu horiek gainditu direla egiaztatzeke, ITXartelaren ziurtatze sistema erabiliko da.

Halakoak lortzeko mugaeguna lehenengo ariketa egiten den eguna izango da.

8.5. Hautaprobeen kalifikazioa.

Oposizio aldiko ariketak deialdi bakoitzaren oinarri espezifiketan xedatzen denaren arabera kalifikatuko dira. Lehiaketa aldiko merezimenduen balorazioa deialdiaren oinarri espezifiketan ezartzen diren baremoen arabera esleitzen diren puntu batura izango da.

Hautaketa prozesuko azken kalifikazioa oposizio eta lehiaketa aldietan lortzen diren puntu batura izango da.

Izangai batzuen arteko berdinketa gertatzen bada, lehentasuna emango zaie emakumeei emakumeak ehuneko 40 baino gutxiago diren eskaletan, azpieskaletan eta klaseetan, honako kasu honetan izan ezik (sexu bereizkeriarik gertatzen ez bada): beste izangaiak neurri hau aplikatzea eragozten duten inguruabarretan egotea, enplegua lortzeko zailtasun bereziak edukitzea, esaterako.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena gorabehera, berdinketa hausten duen lehentasun ordena finkatzeko honako irizpide hauek aplikatuko dira hurrenez hurren:

1. Oposizio aldiaren puntuaziorik handiena lortu duenaren alde egingo da.
2. Oposizio aldiko bigarren ariketan puntu gehien lortzen dituenaren alde.
3. Lehenengo ariketan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
4. Lehiaketa aldiaren puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
5. Lehiaketa aldiaren aintzat hartutako zerbitzuetan denbora gehien egin duela egiaztatu duenaren alde.

9. BEHIN-BEHINEKO HAUTAKETA.

9.1. Hautaketa prozesuko azken kalifikazioa egin ondoren epaimahaiak zerrenda hauek egingo ditu puntuazio hurrenkerari jarraituz:

- a) Sistema irekiko txanda orokorrean prozesua gainditu dutenen behin-behineko zerrenda.
- b) Sistema irekian desgaituentzat gordetako kupotik prozesua gainditu dutenen behin-behineko zerrenda.

c) Barne sustapeneko sistemako txanda orokorrean prozesua gaingitu dutenen behin-behineko zerrenda.

d) Barne sustapeneko sisteman desgaituentzat gordetako kupotik prozesua gaingitu dutenen behin-behineko zerrenda.

9.2. Adierazitako zerrendak egin ondoren, epaimahaiek GOFeren Enplegu Publikoaren Atarian argitaratuko dituzte (www.araba.eus/ifbs/portalempleo/).

Behin-behineko zerrendak argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera interesdunek hamar egun balioduneko epealdia edukiko dute nahi dituzten erreklamazioak aurkezteko epaimahai kalifikatzaileari lehiaketa aldiaren inguruan.

9.3. Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta, halakorik badago, aurkeztu direnak ebatzi ostean, epaimahaiak gaingituen eta eskaintzen diren lanpostuen zerrenda bakar bat argitaratzeko agindua emango du, eta hamar egun balioduneko epea ezarriko du izangaiek adieraz dezaten nahi duten lehenespen ordena lanpostu horien artean. Bai gaingitu dutenen behin betiko zerrenda, bai hamar egun balioduneko epealdia ezarri izana, GOFeren Enplegu Publikoaren Atarian argitaratuko dira (www.araba.eus/ifbs/portalempleo/).

Lehenespenen ordena garaiz eta forma egokian adierazten ez duena ordena horretako azken lekura igaroko da.

Lanpostuari ezarritako hizkuntza gaitasuna egiaztatzen duten hautagaiek ezin izango dituzte lehenetsi lanpostu batzuk beste batzuen aldean, baldin eta LPZn beren arteko desberdintasun bakarra derrigortasun data bada, lanean hasteko eguna bera izanik.

Izangaiek adierazten dituzten lehentasunen eta lanpostuen eta izangaien baldintzen ondorioz lehenengo hautapenean lanpostu guztiak betetzen ez badira, epaimahai kalifikatzaileak beste izangai batzuei eskatu ahal izango die adieraz dezatela beren lehentasun ordena, eta aurreko hautapen irizpide berak aplikatuko ditu.

9.4. Lehentasunak adierazi eta gero, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Prebentzioko Zerbitzuak eskaintzen diren lanpostuak ustez beteko dituzten izangaiei deituko die lehentasunak adierazteko azken ekitaldia amaitzen denetik hilabete pasatu lehen, 3.2.c) oinarrian ezartzen den osasun azterketa egiteko. Osasun azterketa egitera deitutako izangairen batek ez badu betetzen oinarri horretan ezartzen dena, epaimahai kalifikatzaileak hautaprobak gaingitu dituztenen behin betiko zerrendako hurrengo hautagaiei deituko die, beren lehentasunak adieraz ditzaten. Deialdiko lanpostu guztiak betetzeko adina izangairi deituko die, ahal dela, baldintzak betetzen dituztenei, alegia, izangai bakoitzak bere txandan lortutako puntuazioa kontuan izanik. Gero, hautagai horiei osasun azterketa egingo zaie.

9.5. Osasun azterketak amaiturik, 3.2.c) oinarrian ezartzen dena betetzen dutela frogatzen duten hautagaiek hautatuen behin-behineko zerrendan sartuko dira, eta epaimahai kalifikatzaileak GOFeren Enplegu Atarian argitaratuko zu zerrenda hori (www.araba.eus/ifbs/portalempleo/). Epaimahai kalifikatzaileak zerrenda horretan izangai bakoitzari dagokion destinoko lanpostua zehaztuko du eta bertan noiz hasi behar den argituko du, eta hamar egun balioduneko epealdia ezarriko du izangaiek erreklamazioak aurkezteko bederatzigarren oinarrian adierazitako arrazoiengatik eta hamargarren oinarrian aipatzen diren agiriak aurkezteko.

Epaimahaiak hautatuen behin-behineko zerrenda egingo du honako hauek kontuan hartuz: eskatzen diren baldintzak betetzen diren ala ez, txanda bakoitzeko izangaien puntuazio ordena, eta izangaiek adierazitako lehentasuna.

Edozein kasutan, hautaprobak barne sustapeneko sisteman gaingitzen dituzten izangaiek lehentasuna izango dute sistema irekikoan aurretik deialdiaren xede diren lanpostu hutsak betetzeko.

Lanpostua eskuratzea errazteko, parte hartzeko edozein sistematan desgaituentzat gordetako kupoan hautatzen diren pertsonak epaimahai kalifikatzaileari eskatu ahal izango diote plazak aukeratzeko lehentasun ordena aldatzeko, mendekotasun pertsonala, mugitzeko zailtasuna edo antzeko arrazoiak argudiatuta (egiaztatu egin beharko dira).

Epaimahaiak aldaketa hori egitea erabakiko du behar bezala arrazoituta badago, eta mugatuko da lehentasun ordenan behar den gutxieneko aldaketa egitera dibertsitate funtzionala daukan pertsonak lanpostua eskuratu ahal izateko.

10. AGIRIAK AURKEZTEA.

10.1. Eskatzen diren agiriak.

9.5 oinarrian aipatzen den hamar egun balioduneko epealdian hautatuen behin-behineko zerrendan dauden izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte deialdian eskatutako gaitasunak badituztela eta betekizunak betetzen dituztela frogatzeko:

a) Atzerriko izangaiek administrazioaren jakinarazpen bat jasoko dute. Bertan beren egoe-raren arabera nahitaez aurkeztu behar dituzten agiriak berri emango zaie.

b) Zinpeko adierazpena edo hitzematea, adierazten duena eginkizun publikoak egiteko gaituta dagoela eta administrazio publikoetako zerbitzutik diziplina espediente bidez baztertuta ez dagoela, bai eta Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak ezartzen dituen ezintasun eta bateraezintasun kasuren batean ez dagoela ere.

c) Espainiako nazionalitatearik ez duten izangaiek zinpeko adierazpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, adierazten duena beren estatuan ez dutela funtzio publikora sartzeari galarazten dien diziplina zigorrak ez kondena penalik.

d) Gainera, desgaituentzako txandan parte hartzen dutenek 3.3 oinarrian ezartzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute agiri bidez.

10.2. Era berean, hautatuen behin-behineko zerrendan ez daudenek erreklamazioa aurkezten badute 9.5 oinarrian ezarritako hamar egun balioduneko epealdian, erreklamazioarekin batera 10.1 oinarrian aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte.

10.3. Oinarri honetako aurreko puntuen arabera aurkezten diren agiriak jatorrizkoak izan behar dira.

10.4. Aurkezteko lekua.

Lehen adierazitako agiriak Langileen Arloko Zuzendariordetza Teknikoan aurkeztuko dira. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea. San Prudentzio kalea, 30, 1. solairua, Gasteiz (01005).

10.5. Agiriren bat ez aurkeztea.

Ezinbestezko kasuetan izan ezik, aipatutako epealdian eskatutako agiriak aurkezten ez dituztenak edo hirugarren oinarrian eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituztenak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira eta beren jarduketak bertan behera utziko dira. Gainera, hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaeran gezurrik esan badute, horren erantzukizuna izango dute. Kasu horietan, errepikatu egingo dira 9.1 oinarrian eta hurrengoetan adierazitako urratsak, alde batera utzita aurreko paragrafoan adierazitako arrazoiengatik hautaketa prozesutik baztertu diren izangaiek.

Hala ere, saihestu egingo dira aurreko beste batzuk errepikatzea dakarten jardunak, eta horregatik, 10.1 oinarrian adierazitako agiriak ez zaizkie eskatuko dagoeneko aurkeztu dituztenei, eta ez dute berriro ere probarik eta osasun azterketarik egin beharko dagoeneko gainditu dituztenek.

Arrazoi berengatik beste norbait baztertzea gertatzen bada, prozesua errepikatu egingo da aurreko paragrafoan adierazitako moduan, eta horrela behin eta berriro, lortu arte hautatuetakoa inor ez baztertzea arrazoi horiengatik.

11. IZENDAPEN PROPOSAMENA.

9. eta 10. oinarrietan ezarritako izapide guztiak bete ondoren, epaimahai kalifikatzaileak hautatuen behin betiko zerrenda egingo du eta Gizarte Politiken Saileko foru diputatuari aurkeztuko dio, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean karrerako funtzionario izateko izendapenen proposamen gisa. Behin betiko zerrenda GOFeren Enplegu Publikoaren Atarian argitaratuko da: www.araba.eus/ifbs/portalempleo/.

12. KARRERAKO FUNTZIONARIOAK IZENDATZEA ETA LANPOSTUEZ JABETZEA.

12.1. Epaimahai kalifikatzaileak hautatuen behin betiko zerrendaren bidez egindako izendapen proposamena jasorik, Gizarte Politiken Saileko foru diputatu eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakariak zerrenda horretan daudenak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko karrerako funtzionario izendatuko ditu foru agindu egokien bidez, bakoitza berari dagokion eskalan, azpieskalan eta klasean.

Izendapenak ALHAOn argitaratuko dira.

Izendatutakoek hilabete edukiko dute karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetzeko, kasuan kasuko foru agindua ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epealdi hori hamabost egun naturalez luza daiteke, izendatuak eskatzen badu eta arrazoi justifikatua badago.

12.2. Ezinbesteko kasuetan izan ezik, izendatuak lanpostuaz jabetzen ez bada horretarako ezarritako epealdian, hautaketa prozesuaren bidez eskuratu dituen eskubide guztiak galduko ditu. Horrelakoetan 10.5 oinarriko bigarren paragrafoan ezartzen dena aplikatuko da. Izapide guztiak bete ondoren, epaimahai kalifikatzaileak hautatuen behin betiko zerrenda osagarria egingo du eta Gizarte Politiken Saileko foru diputatuari igorriko dio izendapen proposamen osagarri gisa. Behin betiko zerrenda GOFeren Enplegu Publikoaren Atarian argitaratuko da (www.araba.eus/ifbs/portalempleo/) Azkenik, 12.1 oinarrian xedatzen dena egingo da.

13. DEIALDIAREN AURKA EGITEA.

Interesdunek deialdiaren, oinarrien, haien ondoriozko administrazio egintza guztien eta epaimahaien jardunaren aurka egin dezakete, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezartzen dituzten kasuetan eta finkatzen duen moduan.

14. ALDI BATERAKO LAN POLTSAK.

Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikotik, aldi baterako langile beharrak betetzeko erabiliko diren lan poltsetan sartzeko eskubidea izateko lehenengo ariketan lortu beharko diren puntuak adieraziko dira, eta lan poltsa horiek azaroaren 18ko 46/2009 Foru Aginduan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira; hau da, aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren lan poltsak kudeatzeko araudia aldatzea onesten duen azaroaren 18ko 46/2009 Foru Aginduan ezarritakoaren arabera.

Aldi baterako beharrianak asetzea dela eta, kontuan hartu behar da eskala, azpieskala eta klase batean bete beharreko lanpostu guztiek ez dutela ezarrita derrigortasun data bera hizkuntza eskakizunerako, deialdi bakoitzean lan poltsa bakar bat egingo da hautagaiekin, hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten ala ez aintzat hartu gabe.

Aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren lan poltsak kudeatzeko araudia aldatzea onesten duen azaroaren 18ko 46/2009 Foru Agindua 6. artikuluan ezartzen duenaren arabera, deialdietako lan poltsek lehentasuna edukiko dute azaroaren 18ko 46/2009 Foru Aginduko 4. artikuluekin bat etorritik egindako lan poltsen aldean (hauek subsidiarioak izango dira). Era berean, automatikoki indargabetuko dira lan poltsa eta zerrenda subsidiarioak.

15. IRUZURREZKO JOKABIDEAREN ETA LEHIA DESLEIALAREN TRATAMENDUA.

Izangaiek, ez pertsonalki ez hirugarrenen bitartez, ezingo dute epaimahai kalifikatzaileko kideengana jo, banaka, hautaketa prozesuarekin zerikusia duen edozein gai aztertzeko. Hautaketa prozesuaren inguruan sor daitezkeen auziak idatziz planteatuko zaizkio epaimahai kalifikatzaileari, zeinak, kide anitzeko organoa den aldetik, erabaki beharrekoa erabakiko baitu.

Epaimahaiak hautaketa prozesutik kanpo utzi ahal izango ditu probak normaltasunez egitea eragozten duten iruzurrezko ekintzak egiten dituzten pertsonak, edo berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera lehia desleiala sortzen dutenak. Jarduera horiek bilkuraren aktan jasoko dira.

Era berean, hautaketa prozesuan zehar ezin izango da erabili edo eduki aipatutako printzipioak saihesteko erabil daitezkeen gailu edo bitarteko elektronikorik.

Izangairen batek arau horiek betetzen ez baditu, berehala kanporatuko da probatik zein hautaketa prozesutik, eta ez da, inola ere, probaren ondoriozko lan politan sartuko.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

110/2021 Foru Agindua, uztailaren 29koa. Hautaketa prozesurako deialdia eta berariazko oinarriak onartzea karrerako funtzionario izateko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Bereziko eskalan, azpieskala teknikoan, goi-mailako teknikarien motan, psikologo lanpostuan

820/2018 Erabakia, Abenduaren 28koa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2018rako enplegu publikoaren eskaintza onetsi zen, eta bertan jaso ziren hautaprobez bidez bete beharreko plazaak. Psikologo plazaak ditu, besteak beste.

857/2019 Erabakia, abenduaren 27koa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2019rako enplegu publikoaren eskaintza onetsi zen, eta bertan jaso ziren hautaprobez bidez bete beharreko plazaak. Psikologo plazaak ditu, besteak beste.

723/2020 Erabakia, abenduaren 29koa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2020rako enplegu publikoaren eskaintza onetsi zen, eta bertan jaso ziren hautaprobez bidez bete beharreko plazaak. Psikologo plazaak ditu, besteak beste.

Hautaketa-prozesuen kudeaketan ekonomia, eraginkortasun eta efizientzia arrazoiak direla eta, komeni da 2018ko, 2019ko eta 2020ko lan-eskaintza publikoak, psikologo-lanpostuei buruzkoak, batera egitea.

Ekainaren 16ko 93/2021 Foru Aginduak (ALHAO, 72. zk., 2021eko ekainaren 30ekoa) onartzen ditu aipatutako enplegu publikoaren eskaintzen ondorioz Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzuan karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Aipatutako Foru Aginduan xedatzen da hautaketa prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa dela eskala, azpieskala eta klase bakoitzeko plazen deialdia arautu behar duten oinarri espezifikoak argitaratzea, eta horietan plaza bakoitzaren ezaugarri bereziak zehaztu beharko direla.

Aipatutako guztia kontuan izanda, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak ezarritakoarekin bat etorriz, 23. artikuluan eta XI. idazpuruaren IV. Kapituluan langileen hautaketa-prozesuen inguruan, zeina azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatu zuen, eta apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluko 25/2012 Foru Dekretuaren 11.b) artikulua aurreikusitakoaren arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia onartzen duena,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Oinarri hauei dagozkien hautaprobetarako deia egitea.

Bigarrena. Foru Agindu honen I. Eranskin moduan jasotzen diren oinarri espezifikoak onartzea, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen hautaketa-prozesua zuzendu behar dutenak karrerako funtzionario gisa sartzeko - Administrazio Bereziko Eskala, Teknikarien Azpieskala, Goi Mailako Teknikari Mota, Psikologoa.

Hirugarrena. Foru Agindu honen II. Eranskin moduan jasotzen den gai zerrenda onartzea.

Laugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko

epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, Administrazioarekiko auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan- Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin loturik-xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 29a

Gizarte Politiken foru diputatua
EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ

I. ERANSKINA **OINARRI ESPEZIFIKOAK**

ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, AZPIESKALATEKNIKOAK,
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KLASEA, PSIKOLOGOA

1. DEIALDIKO PLAZAK.

Honen bidez, A taldeko (A1) Administrazio Bereziko eskalako, azpieskala teknikoko eta goi-mailako teknikarien klaseko 21 psikologo plazarako deia egiten da lehiaketa-oposizioaren bidez. Plaza horiek honela banatuko dira:

- 17 plaza sistema irekiko txanda orokorrean, banaketa honen arabera:
 - 12 Plazak 3. hizkuntza eskakizuna dute, nahitaezkoa.
 - 5 plazak 3. hizkuntza eskakizuna dute, ez da nahitaezkoa.
- 2 plaza sistema irekian desgaitasun orokorra dutenentzat gordetako kupoan, banaketa honen arabera:
 - 2 Plazak 3. hizkuntza eskakizuna dute, nahitaezkoa.
- 2 plaza barne sustapeneko txanda orokorrean, banaketa honen arabera:
 - 1 Plazak 3. hizkuntza eskakizuna du, nahitaezkoa.
 - 1 plazak 3. hizkuntza eskakizuna du, ez da nahitaezkoa.

2. BALDINTZAK.

Oinarri orokorretan ezartzen diren baldintzak betetzeaz gainera, Psikologiako lizentziatura edo baliokidea izatea edo agiriok jaso ahal izateko eskubideak ordainduta egotea. Atzerrian lortutako tituluak izatekotan, horien homologazioa frogatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.

3. DEIALDIAN PARTE HARTZEKO TASAK.

3.1. Maiatzaren 16ko 12/2005 Foru Arauaren laugarren artikuluan ezarritakoaren arabera (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea erakunde autonomoaren langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasak ezartzeari buruzkoa da arau hori, eta Arabako Lurralde Historikoaren 2020ko Aurrekontua Betearazteko abenduaren 17ko 24/2019 Foru Arauaren bosgarren xedapen gehigarriak aldatu zuen), deialdi honetan parte hartzeko 30 euroko tasa ordainduko da eskabide bakoitzeko.

3.2. Tasa hau eskaera aurkeztean ordaindu behar da berariaz ezarritako ordainketa pasabideaz baliatuz.

4. HAUTAPEN PROZESUA.

4.1. Oposizio fasea.

Fase honetan bi ariketa egingo dira, nahitaezkoak eta baztertzaileak (lehenengoa eta bigarrena).

4.1.1. Lehenengo ariketa.

Sistema irekia.

Ariketa honetan, gehienez ere, hogeita lau (24) puntu lor daitezke. Nahitaezko proba bat izango da, eta bertan idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak ezarritako gehienezko epean, oinarri hauen zati komunaren eta gai-zerrendaren zati espezifikokoaren edukiei buruzko lau erantzun alternatibo dituen galdera-sortari.

Barne sustapeneko sistema.

Ariketa honetan, gehienez ere, hogeita lau (24) puntu lor daitezke. Nahitaezko proba bat izango da, eta bertan idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak ezarritako gehienezko epean, oinarri hauen zati komunaren eta gai-zerrendaren zati espezifikokoaren edukiei buruzko lau erantzun alternatibo dituen galdera-sortari.

Bi txandei aplikatzeko puntuazio-sistema:

Zuzeneko puntuazioa kalkulatzeko formula hau aplikatuko da: ondo erantzundako galderen kopurutik gaizki erantzundako galderen herena kenduko da ($P = Z - O/3$). Ondorio horietarako, erantzun gabeko galderak ez dira hutsegitetzat hartuko.

Amaierako puntuazioa hamar (12) izateko ezinbestekoa izango da formula aplikatu ondoren zuzenean lortutako puntuazioa zuzenean gehienez lor daitekeen puntuazioaren ehuneko hirurogei (ehuneko 60) izatea.

Baldin eta Lehenengo ariketa honetan hamabi (12) puntu edo gehiago lortu dituzten hautagaien kopurua, txanda guztien zenbaketa orokorrean, deitutako plazen kopurua halako 3 baino txikiagoa bada, (12) puntuko azken puntuazioa lortzeko behar den zuzeneko puntuazioa jaitsiko da, eta txanda guztien zenbaketa orokorrean hamabi (12) puntu edo gehiago lortu dituzten hautagaien kopuruak ez ditu deitutako plazak halako 3 gaindituko. Nolanahi ere, gainditzeko behar den zuzeneko puntuazioa ezin da izan zuzenean gehienez lor daitekeen puntuazioaren ehuneko berrogei (ehuneko 40) baino gutxiago.

Baldin eta aurkeztutako pertsonen kopuruagatik ezinezkoa bada deitutako plazak 3 aldiz lortzea, beti ezarriko da puntuazio zuzen gisa 12ren baliokidea: gehienez lor daitekeen puntuazio zuzenaren ehuneko 40a (ehuneko 40).

Zuzeneko puntuazioa hamabi (12) izateko zenbatekoa ezarri ondoren, hautagaiak lortutako zuzeneko puntuazioak amaierako puntuazio bihurtuko dira. Beraz, amaierako hogeitalau (24) puntuko puntuazioari dagokio zuzeneko gehieneko puntuazioa, eta amaierako zero (0) puntu, puntuazio zuzeneko zero (0) punturi dagokio, eta batezbesteko puntuazioak proportzionalki kalkulatu dira.

Eragiketa hauek guztiak izangaiak nortzuk diren jakin gabe egingo dira.

Gutxieneko puntuaziora, hamabira (12) heltzen ez diren hautagaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

4.1.2. Bigarren ariketa.

Epaimahaiak adierazitako oinarri hauei dagokien gai-zerrendaren zati espezifikoarekin zerikusia duten kasu praktiko bat edo gehiago egin beharko dira, epaimahaiak ezartzen duen gehieneko epean.

Bigarren ariketa zero (0) puntutik hoge (20) puntura artera kalifikatuko da; hamar (10) puntuko kalifikaziora heltzen ez diren hautagaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

Ariketa hau kalifikatzeko, erantzunen zehaztasuna, laburtzeko eta aztertzeko gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna, argitasuna eta zuzentasuna eta zuzentasun-ortografikoa hartuko dira kontuan.

4.2. Euskara proba.

Proba honetan, euskararen ezagutza neurtuko da; horretarako, 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba egin beharko da.

Egiaztatzen diren hizkuntza eskakizunak honela baloratuko dira:

1 HE: 3 puntu.

2 HE: 4,5 puntu.

3 HE edo handiagoa: 6,5 puntu.

4.3. Lehiaketa fasea.

Lehiaketa aldian, izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Haietako bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak esleituz egingo da.

4.3.1. Esperientzia.

a) Sistema irekia.

Administrazio publikotzat hartzen diren erakundeetako lan esperientzia honela baloratuko da: gehienez hamabi (12) puntu; 0,04 puntu A (A1) edozein herri-administrazioan A (A1) taldeko lanpostuetan edo eginkizunetan emandako hilabete oso bakoitzeko, baldin eta lan hori egiteko Psikologiako Lizentziatura eduki behar bada edo baliokidea edozein harreman juridikoren pean, salbu eta zerbitzu zibilak edo merkataritzakoak alokatzeko kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak.

Ondorio horietarako, herri administrazioetat abenduaren 26ko 70/1978 Legeak barnean hartzen dituenak jotzen dira, berekin dakartenak herri administrazioako aurretiazko zerbitzuen aitorpena, merkataritza sozietate publikoak eta fundazioak kanpo daudelarik.

b) Barne sustapeneko sistema.

Lanbide-esperientzia gehienez ere hamabi (12) punturekin baloratuko da, 0,04 punturekin edozein administrazio publikotan B (A2) taldeko eskaletan lan egindako hilabete oso bakoitzeko, eta 0,08 punturekin edozein administrazio publikotan A (A1) taldeko eskaletan lan egindako hilabete oso bakoitzeko, baldin eta, lan egiteko, Psikologiako Lizentziatura edo baliokidea eduki behar bada, edozein harreman juridikoren pean, salbu eta zerbitzu zibilak edo merkataritzakoak alokatzeko kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hirurtekoetarako aitortutako antzintasuna baino ez da zenbatuko.

4.3.2. Informatikako ezagutzak.

Gehienez ere 0,50 puntutaraino ITxartelaren ziurtatze sistemaren bitartez informatikaren ezagutza mailak egiaztatzeagatik, ondoko baremo honen arabera:

PROGRAMA	PUNTUAK
Windows 7	0,10
Microsoft Word 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2007 aurreratua	0,10

PROGRAMA	PUNTUAK
Microsoft Excel 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2010	0,10
Microsoft Outlook 2010	0,10
Internet aurreratua	0,10

Aplikazio baten bertsio jakin baten ziurtapenak baliogabetu egingo ditu aurreko bertsioenak.

Arabako Foru Aldundiak erakunde jaulkitzaileari ofizioz eskatuko dio izangaiak lortu dituzten egiaztapenak ziurtatzeko, oinarri orokorretan ezarritako epearen barruan.

5. ALDI BATERAKO LAN-POLTSA.

Prozesu honetako oinarri orokorretako 14. oinarrian ezarritakoaren arabera, deialdi honetako lehenengo ekitaldian aldi baterako lan-poltsetan sartzeko eskubidea izateko lortu beharreko gutxieneko puntuazioa 8 puntukoa da.

II. ERANSKINA

IKASGAI KOMUNAK

1. gaia. Espainiako Konstituzioa (I). Oinarrizko eskubide eta betebeharrak (10-55 artikulua).
2. gaia. Espainiako Konstituzioa (II). Botereen antolaketa. Gorte Nagusiak (66-80 artikulua). Legeak egitea (81-92.).
3. gaia. Espainiako Konstituzioa (III). Estatuaren Lurralde Antolamendua (137-158 artikulua).
4. gaia. Europar Batasuna. Erakunde eta organismo nagusiak, haien osaera eta eskumenak: Kontseilu Europarra, Europar Batasuneko Kontseilua, Batzordea, Parlamentua, Justizia Auzitegia, Europako Kontuen Auzitegia, Eskualdeetako Komitea, Europako Inbertsio Bankua. (Europako Erkidegoa Ituna eratzeke finkatutako bertsioa, Bosgarren zatia, I. Titulua 1-5 kapituluak).
5. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua (I). Atariko titulua (1 – 9 artikulua). I. Titulua: Euskal Herriaren eskumenak (10-12 artikulua). II. Titulua: Euskal Herriaren botereez (24-39 artikulua).
6. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua (II). III. Titulua: Ogasuna eta Ondarea (40. 45.artikulua).
7. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoen Foru Administrazioa. (I). 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoen lurralde-antolamenduari buruzkoa (1-33 artikulua).
8. gaia. Arabako Biltzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (II). 52/92 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa Funtzionalari eta Araubide Juridikoari buruzkoa (3., 4., 17., 18., 38., 39. artikulua) 4/2000 Foru Araua, otsailaren 21koa, Arabako Foru Aldundiko goi-karguen, haren erakunde autonomoen eta foru-sozietate publikoen eta Arabako Foru Aldundiko behin-behineko langileen araubidea arautzen duena (1-6 artikulua).
9. gaia. Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Saila: 13/2016 Foru Dekretua, otsailaren 9ko Diputatuen Kontseiluarena. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: erakunde Autonomoa

eratzten duen ekainaren 20ko 21/1988 Foru Araua eta Egitura eta Funtzionamendu Araudia onartzen duen apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretua.

10. gaia. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena. Langile motak (8-13 artikulua). Enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak Enplegatu publikoen jokabide kodea (14 – 54 artikulua). Zerbitzu harremana eskuratzea eta galtzea (55 – 68 artikulua).

11. gaia. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena. Lanpostuak hornitzea eta mugigarritasuna (78-84 artikulua) Administrazio-egoerak (85-92 artikulua). Diziiplina araubidea (93-98 artikulua).

12. gaia: Administrazio Prozedura (I). Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Xedapen Orokorrak (1-2 artikulua). Prozeduran interesa agertu dutenak (3-12 artikulua). Jarduketa arau-oroak (13-28 artikulua). Epemugak eta epeak (29-33 artikulua).

13. gaia. Administrazio Prozedura (II). Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Egintzen betekizunak (34-36 artikulua). Egintzen efikazia (37-46 artikulua). Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna (47-52 artikulua).

14. gaia. Administrazio Prozedura (III). Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio-prozeduran interesdun denaren eskubideak (53. artikulua). Prozedura hastea (54. artikulutik 69.era). Prozedura antolatzea (70. artikulutik 74.era). Instrukzioa (75. artikulutik 83.era) Amaiera (84.etik 95.era).

15. gaia. Administrazio Prozedura (IV). Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio-errekurtsioak (112. artikulutik 126.era).

16. gaia. Sektore publikoko kontratuak 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten baita Espainiako ordenamendu juridikora. Sektore publikoko kontratazioari buruzko xedapen orokorrak (28. 43. artikulua).

17. gaia. Datuen babesa. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa. Xedapen orokorrak (1. artikulutik 3.era). Datuak babesteko printzipioak (4-10 artikulua). Pertsonen eskubideak (11. artikulutik 18.era).

18. gaia. Berdintasun politikak. Printzipio orokorrak eta babesa. Politika publikoak: printzipio orokorrak (Lege Organikoa, martxoaren 22ko 3/2007 Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko, 3-22 artikulua). Euskal administrazio publikoen eremuko neurriak (Euskal Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea (18-22 artikulua)).

GAI ESPEZIFIKOAK

19. gaia. 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, norbanakoaren autonomia sustatzeari eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen laguntzeari buruzkoa. (1- 31. artikulua).

20. gaia. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 2008ko abenduaren 24ko EHAA, 246. zenbakia. II. Titulua. I. kapituluak, 1. eta 2. atalak. 2. eta 3. kapituluak 3. titulua 1. kapituluak.

21. gaia. 185/2015 dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorrotzari buruzkoa. (1- 34a artikulua, eta 1. Eranskina)

22. gaia. 36/2014 Foru Dekretua, uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluarena, arautzen duena mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek

jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanaz gero, Arabako Gizarte Zerbitzuen diru prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere: 43tik 45.era, 51., 53., 54, 56. eta 57. artikulua.

23. gaia. 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizun eta kexen araubidea onartzekoa.

24. gaia. Bioetikaren printzipioak. 14/2011 Foru Dekretua, martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluarena, zeinaren bidez Arabako Lurralde Historikoan Etika Batzordeen sorrera eta egiaztatzea arautzen diren.

25. gaia. 8/2017 Foru Dekretua, otsailaren 28ko Foru Gobernu Kontseiluarena, onartzen duena Lurralde Historiko honetako gizarte zerbitzuen foru sareko adinekoen zentroetako oinarritzko estatutua, eta indargabetzen duena otsailaren 20ko 19/2001 Foru Dekretuaren bidez onartutakoa.

26. gaia. 11/2016 Legea, uztailaren 18koa, bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa.

27. gaia. 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testuategina onesten duena. 2013ko abenduaren 3ko BOE, 289. zenbakia.

28. gaia. 2006ko abenduaren 13ko New Yorkeko Konbentzioan aitorturiko desgaitasuna duten pertsonen eskubideak berresteko tresna. 2008ko apirilaren 21a, BOE 96. zk. Hitzaurrea. 1. artikulutik 31.era bitartekoak.

29. gaia. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Europako Estrategia 2021-2030. Brusela, 2021-03-03. COM (2021) 101 azkena.

30. gaia. 13/2016 Dekretua, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoa.

31. gaia. 10/2021 Foru Dekretua, martxoaren 9koa, Gobernu Kontseiluarena. Arabako Lurralde Historikoan dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako egoitza-, egun- eta okupazio-arretarako zentroen oinarritzko estatutua. 1etik 41era bitarteko artikulua.

32. gaia. Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko esparru juridikoa: 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko (1-85 artikulua). 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzekoa.

33. gaia. Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko esparru juridikoa. Haurren babesaren arloko jarduketak inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrekin: 2/2009 Lege Organikoa, abenduaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa erreformatzen duena (35. artikulua). Ebazpena, 2014ko urriaren 13koa, Idazkariordetzarena, Lagundu gabeko Adingabe Atzerritarrekin lotutako zenbait jarduketari buruzko Esparru Protokoloa onartzeko Akordioa argitaratzen duena Akordioaren kapituluak; I, II, VI eta VII.

34. gaia.: 131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituen (I. titulua, 1-12 artikulua, II. titulua, 14-29 artikulua, IV. titulua, 61-64 artikulua).

35. gaia. Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko esparru juridikoa. 179/2018 Dekretua, abenduaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoan familia-harrera arautzen duena (1. kapituluak, 1-6 artikulua, 2. Kapituluak, 7-8 artikulua, 4. kapituluak, 15-25 artikulua). VI. eta VII. kapituluak.

36. gaia. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa (1-44 eta 61-69 artikulua).

37. gaia. 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera-baliabideak arautzen dituenak. Artikuluak zehazteko zain.

38. gaia. Erakundeen arteko koordinazioa tratatu txarren biktimei laguntzeko: II. Akordio Institutuzionala etxeko tratatu txarren eta sexu-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako arreta hobetzeko.

39. gaia. Gizarteratzeko IV. Euskal Plana 2017-2021, 2., 3., 4. eta 5. kapituluak.

40. gaia. Gizarte-zerbitzuetako bigarren mailako arretako programak, zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak Arabako Lurralde Historikoan.

41. gaia. Psikologiako profesionalen zeregina gizarte-zerbitzuetan eta diziplinarretako talde batean sartzea.

42. gaia. Eskizofreniaren espektroa eta beste nahasmendu psikotiko batzuk. Irizpide eta ezaugarri diagnostikoak DSM-5en arabera.

43. gaia. Nahasmendu suntsitzaileak, bulkaden kontrola eta jokabidea. Irizpide eta ezaugarri diagnostikoak DSM-5en arabera.

44. gaia. Nahasmendu bipolarra eta horrekin lotutako nahasmenduak. Irizpide eta ezaugarri diagnostikoak DSM-5en arabera.

45. gaia. Nahasmendu obsesibo-kompulsiboa. Irizpide eta ezaugarri diagnostikoak DSM-5en arabera.

46. gaia. Nahasmendu depresiboak. Irizpide eta ezaugarri diagnostikoak DSM-5en arabera.

47. gaia. Antsietate-nahasmenduak. Irizpide eta ezaugarri diagnostikoak DSM-5en arabera.

48. gaia. Traumekin eta estres-faktoreekin lotutako nahasmenduak. Irizpide eta ezaugarri diagnostikoak DSM-5en arabera.

49. gaia. Substantziekin lotutako trastornoak eta adikzio-trastornoak. Irizpide eta ezaugarri diagnostikoak DSM-5en arabera.

50. gaia. Nortasunaren nahasmenduak. Irizpide eta ezaugarri diagnostikoak DSM-5en arabera.

51. gaia. Nahasmendu neurokognitiboak: nahasmendu neurokognitibo handia eta nahasmendu neurokognitibo txikia. Irizpide eta ezaugarri diagnostikoak DSM-5en arabera.

52. gaia. Garapenaren nahasmendu orokorrak. Definizioa, sintomatologia, diagnostiko diferentziala eta esku-hartzea.

53. gaia. Arreta goiztiarra. Diagnostikoa eta esku-hartzea.

54. gaia. Desgaitasun intelektuala, etiologia, tipologia, tratamendua eta esku hartzeko ereduak.

55. gaia. Desgaitasun fisikoa eta sentoriala: etiologia, tipologia eta tratamendua, eta esku hartzeko ereduak.

56. gaia. Jokabidea aldatzeko teknikak.

57. gaia. Terapiak kognitibo konduktualak: terapia emozional, terapia konduktuala, terapia kognitiboa, estresaren kontrola eta arazoak konpontzeko entrenamendua.

58. gaia. Testuinguru-terapiak edo hirugarren belaunaldikoak: onarpen- eta konpromiso-terapia, mindfulness eta jokabide-aktibazioa.

59. gaia. Gizarte-trebatasunetan trebatzea.

60. gaia. Jarduteko jarraibideak Euskadiko haur eta nerabeen sexu-abusu eta -esplotaziorako: jarduteko printzipio orokorrak, jarduketa espezifikoak, esku-hartzea, tratamendua eta jarraipena gizarte-zerbitzuen esparruan. Sexu-abusuaren adierazleak.

61. gaia. Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria: sorrera eta mantentzea, ikuspegi teoriko-praktikoak familiekin esku hartzeko.

62. gaia. Familian esku hartzeko funtsezko prozesuak: familia-sistemaren balorazioa; familia-sistemaren orekan inplikaturako parametroak eta ekuazioa.

63. gaia. Atxikimenduaren teoria. Oinarrizko kontzeptuak. Atxikimenduaren eraketa. Atxikimenduaren garapena bizi-zikloan zehar.

64. gaia. EAEko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaletako eta lurraldeetako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko tresna (BALORA).

65. gaia. Arabako Lurralde Historikoan hurrei zuzendutako gizarte-zerbitzuetarako jardueragida.

66. gaia. Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeentzako arreta: adingabeak genero-indarkeriaren egoeraren zuzeneko biktimatzat hartzea. Genero-indarkeriaren eraginpean egoteko moduak. Gurasoekiko harremanak adingabearentzat dakarren arrisku-egoera baloratzea. Larrialdi-egoeretan jardutea.

67. gaia. Adingabeen zentroetako jokabide problematikoei arreta ematea: zer diren jokabide problematikoak eta zergatik gertatzen diren. Agerpenean eragina duten faktoreak. Bizitegi-eremuko jokabide problematikoei ikuspegi sistemiko batetik heltzeko gakoak. Egoitzetan jokabide arazotsuak agertzea prebenitzeko estrategiak, harreman kokapenaren bidez.

68. gaia. Bizitza independentearen paradigma. Bizimodu independentea babesteko eredua Araban.

69. gaia. Nahasmendu duala. Buruko nahasmendu nagusiak adimen-desgaitasunean.

70. gaia. Jokabide-alterazioak adimen-desgaitasuna duten pertsonengan.

71. gaia. Adimen-desgaitasuna duten pertsonen buruko eta jokabideko nahasmenduetan esku hartzeko estrategiak eta ebaluazioa.

72. gaia. Ongizate emozionala desgaitasuna duten pertsonengan.

73. gaia. Bizi-kalitatearen eredua. Bizi-kalitatearen dimentsioak eta kalitate-adierazleak.

74. gaia. Laguntzen paradigma eta eredua. Beharrak ebaluatzea eta laguntzak planifikatzea.

75. gaia. Jokabide-laguntza positiboa, jokabide problematikoei aurre egiteko esku hartzeko teknika gisa. Kontzeptua, ezaugarriak eta osagaiak.

76. gaia. Adimen-desgaitasuna eta zahartzea.

77. gaia. Balorazio geriatriko integrala, esku-hartzearen xedea eta erabilgarritasuna: balorazio klinikoa, funtzionala, funtzio kognitiboei eta sozialei buruzkoa. Ebaluazio neuropsikologikoa. Erabilitako eskala eta test neuropsikologiko nagusiak. Diagnostiko-txostena.

78. gaia. Pertsonarengan oinarritutako arreta-eredua.

79. gaia. Adinekoen zentroetako arreta-plan indibidualizatua. Egiteko prozedura eta faseak eta berrikuspenak. Esku hartzen duten profesionalen funtzioak. Erreferentziazko profesionalak. Adinekoaren eta haren familiaren komunikazioa eta parte-hartzea.

80. gaia. Adinekoen aurkako tratu txar fisiko eta ekonomikoak. Prebentzio- eta detekzio-prozedura.

81. gaia. Sexualitatea egoitzetako adinekoen artean.

82. gaia. Bizitzaren amaierako zainketak. Psikologiako profesionalen zeregina adinekoari eta haren familiari prozesuan arreta eta laguntza ematen. Laguntza doluan. Aurretiazko borondateen dokumentua.

83. gaia. Instituzionalizazio-prozesua. Psikologiako profesionalen zeregina adinekoari eta haren familiari baliabidera egokitzeko prozesuan arreta eta laguntza ematean.

84. gaia. Terapia ez-farmakologikoak adinekoei laguntzeko esku-hartzean. Dementia duten adinekoen esku-hartze kognitiboak. Psikoestimulazioa.

85. gaia. Eguneko zentroetan eta egoitzetan artatutako adinekoen nahasmendu psikologikoak eta portaera-alterazioak. Kontrol eta esku-hartze psikologikoa. Laguntza-estrategiak.

86. gaia. Indarkeria matxista. Esparru teorikoa eta biktimizekiko eta erasotzaileekiko esku-hartzea.

87. gaia. Bikotekideek edo bikotekide ohiek emakumeen aurka eragindako indarkeriari lotutako faktore psikologikoak. Indarkeriaren prozesu psikologikoa, tratu txarren dinamika: indarkeriaren zirkulua eta arrisku bereziko une batzuk.

88. gaia. Tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta. Detektatzeko jarraibideak. Indarkeriaren adierazleak.

89. gaia. Euskadin suizidioa prebenitzeko estrategia.

90. gaia. Gaixotasun mentala duten pertsonen errekupeziara bideratutako arreta.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

114/2021 Foru Agindua, abuztuaren 3koa. Hutsen zuzenketa onartzea 110/2021 Foru Aginduan, uztailaren 29koan, zeinaren bidez deialdia eta oinarri espezifikoak onartzen diren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen karrerako funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, goi mailako teknikarien klasea, psikologoa) sartzeko hautaketa prozesua arautu behar duenak

Akatsa antzeman da 110/2021 Foru Aginduan, uztailaren 29koan, zeinaren bidez deialdia eta oinarri espezifikoak onartzen diren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen karrerako funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, goi mailako teknikarien klasea, psikologoa) sartzeko hautaketa prozesua arautu behar duenak.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia onartzen duen apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretuaren 11.b) artikulua xedatutakoarekin bat etorriz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Uztailaren 29ko 110/2021 Foru Aginduan II. Eranskineko 37. gaia zuzentzea, zeinaren bidez deialdia eta oinarri espezifikoak onartzen diren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen karrerako funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, goi mailako teknikarien klasea, psikologoa) sartzeko hautaketa prozesua arautu behar duenak.

Hau dioen lekuan:

37. gaia. 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera-baliabideak arautzen dituenak. Artikuluak zehazteko zain."

Beste hau esan behar du:

"37. gaia. 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera-baliabideak arautzen dituenak."

Bigarrena. Foru Agindu hau argitaratzea ALHAOn eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu publikoaren atarian www.araba.eus/ifbs/portalemplo/.

Hirugarrena. Foru Agindu honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoetarako Epaitegiaren aurrean, edo bestela, hilabeteko epean, berraztertze errekurtsoa, ebazpen hori eman duen erakunde beraren aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, horri lotuta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abuztuaren 3a

Gizarte Politikoen Saileko foru diputatua
EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ